

Kultur bilgunea: komunitatea antolatzen, koordinatzen eta zabaltzen

Azpeitiko kultur mugimendua 2006tik ari da, Kultur Mahaia bilgune gisa sortuta, herri bezala pentsatzen eta aritzen. Lehen urteetan komunitatea batzea eta antolatzea izan zen zeregin nagusia. Bigarren fasean, azpiegiturak eta koordinazioa. Hirugarrena 2022an hasi du; oinarrizko lanei berrekin die, eta komunitatea zabaltzeari.

Azpeitian, batera pentsatzeko eta aritzeko, kultur arloko eragileen lehen elkar hartzea 1998an gertatu zen, [Uztarría Kultur Koordinakundea](#) sortuta (euskara eta komunikazioa alorrak ere hartu zituen). Hamar urteko ibilbidea egin zuen, eta arrastoa utzi. 2008an erabaki zuen koordinakunde gisa desegitea; besteak beste, kultur eremuan Kultur Mahaia izateko bilgune nagusia.

Lehen fasea

2006an sortu zen Kultur Mahaia, eta hurrengo urtean hartu zuen martxa iraunkorra, barne funtzionamendua zehaztuta, Talde Eragilea sortuta eta plan bat eginda. Kultur mugimenduaren bilgune gisa jo zen mahaia, bera ere herri gisa pentsatzeko eta aritzeko asmoz; kultur taldeak, udal taldeek eta norbanakoak osatu zuten.

Betiere herriko kultur eragile bakoitzaren autonomia eta jarduera errespetatuz, kultur komunitatea batzea eta kohesionatzea ikusi zen, eta lehenengo ildoei ekitea: azpiegiturak (Sanagustin kulturgunea), programazio orekaturako irizpideak, komunikazioa... Hura izan zen bilgunearen lehen fasea.

Bigarren fasea

Sanagustin kulturguneak 2010ko abenduan ireki zituen ateak, eta 2011ko uztailan Kultur Mahaiak haren kudeaketa hartu zuen, kooperatiba bat eratuta (Kulturaz). Bide batez, kulturgunea osatu egin zen, ostalaritza zerbitzuarekin. Kultur komunitate artikulatuaren bigarren faseari ekin zitzaion Sanagustin zabaldua. 2014an Soreasu antzokia kudeatzen hasi zen Kulturaz, eta 2016an Dinamoia sormen gunearen lehen pausoak eman ziren (2019tik du jarduera handiagoa; 2021ean izan zen inaugurazioa). Kulturazek gestionatzen du Dinamoia ere.

Azpeitiak urrats handia egin du programazioan, haren orekan, koordinazioan, proiektuetan, erreferentzian... Hamar urte iraun ditu bigarren faseak.

Hirugarren fasea

Dena dela, bigarren fasearen bukaera aldera, Kultur Mahaiko Talde Eragileak herriko kultur taldeekiko zeukan harremana moteldu egin zen, eta mahaiko bazkideek birmoldaketa prozesua egin zuten 2021ean. Ondorioztatu zuten aurreko 10-15 urtean egindakoa oso garrantzitsua izan dela, jarraitu behar dela norabide berean lanean, baina tokatzen dela berriz ere oinarrizko lana egitea, zorua ereitea.

Kultur Mahaiaren 2022ko otsaileko batzarrean finkatu ziren helburuak: herri ikuspegia sakondu, kultur komunitatea gehiago josi eta zabaldu, kidetasun kontzientzia hedatu, Kulturazten lau eremuetako (soinua, gorputza, irudia, hitza) erabakiguneak zabaldu...

Finkatutako hiru ildoak:

- Talde Eragilearen egiteko finkoak. Oinarrizko lana: kultur taldeekin harreman iraunkorra (haien kezak, gogoetak, asmoak...); taldeen finantzazioa; norbanako sortzaileak komunitatean bildu; biziberritzeko planteamenduak; formakuntza; komunikazioa; Kulturazten erabakiguneak zabaldu...
- Ekinbide zehatzak, herri ikuspegia izanik: ekitaldiak; proiektuak... Dinamika zabalak xede.
- Arnasa luzeagoko planteamenduak pentsatu.

Kultur Mahaiak urtean bizpahiru batzar egiten ditu, eta kultur komunitateko kide eta eragile orok har dezake parte.